

Lehen Hezkuntza

# Ibaiak, ura baino gehiago

**Helburuak:**

Ibai ekosistemaren elementuen elkarreaginaren garrantzia antzematea.

**Landutako gaitasunak**


- Zientzia-, teknologia- eta osasun kultura
- Gizarterako eta hiritartasunerako konpetentzia

Ibaiak planetaren ekosistema garrantzitsuenetakoak dira ur barik bizitzerik ez dago eta. Ekosistema batean, bizidun eta ez-bizidunen artean elkarreagin ugari daude eta guztiei esker bizitza aurrera doa. Gizakiok ere eragiten dugu sistema horretan, zoritxarrez askotan ibaien kalterako, aisialdirako erabiltzen dugulako, nekazal lurrak ureztatzeko edo hirietako ur-zikinak bertara botatzen ditugulako. Dena dago konektaturik!!

**Ekintza**

**Prozedura**

1. Marrazkian ibai ekosistemaren elementu batzuk ageri dira lau ataletan banaturik: ubidearen izaera, fauna, flora eta giza eraginak. Aukeratu horietako bat eta:
2. Elementu horri buruz ikerketatxo bat egin. Ondoren, fitxa bat prestatu (ikus hurrengo orriari)
- Batzuk oso zehatzak dira, beste batzuk berriz orokorregiak, adibidez aisialdia, baina kasu hauetan adibide zehatz bat har dezakezu (piragua edo igeriketara, adibidez) edo arrokak eta harrien kasuan kareharria aukeratu dezakezue.
3. Bakoitzak bere fitxa identifikagarria lepotik zintzilikatzen du.
4. Taldeko batek artile mataza baten ertza ondo lotuz, berarekin erlazioaturiko elementu bat ordezkatzeko duenari botatzen dio mataza eta haria, erlazio horiek azalduz. Haria hartu duenak 3. bati botatzen dio erlazioak azalduz. Horrela taldekide guztiek erlazioaturik egon arte.
5. Erlazio eta elementu guztiak horma irudi baten irudika daitezke.



ELEMENTUA:

Zer da? Zein ezaugarri ditu?

MARRAZKIA edo ARGAZKIA

Zer funtzio betetzen du ibaian?

Zer kalte edo onura eragiten dio ibaiari?